

GOGORAPENAK

P. ALBERTO BEGUIRIZTAIN

Lantxo onen elburua

Berrogei ta amar urte «Aralar-go Adixkideak» deritzan bazkuna eraiki zala. Lantxo ontan argitaratu nai nituzke bazkide oriek Aralar-go artzaien alde egindako lanak. Mendigoizale jatorra beti izan da iñori laguntzeko, gogo onekoa. Mendiko bakardadean eta arrixkuetan iñork baño obeto ikusten bait-du ziñ atsegiña dan norbaiten laguntza. Beraz, tolosar mendigoizaleak asi ziranean, Aralar-mendia zear, ango tontorrak igo, ango ordekek igaro, gain aietatik urrutira ikusten diran gauza zoragarriaz gozatzen asi ziranean, eta, batez ere, Igaratza-ko Babes-etxea eraiki zutenean, ikusi zuten an inguruko artzaiak nola bizi ziran. Leio gabeko txabola txar batzuetan. Antxe toki batean beren gauza guztiak (ezer gutxi): aldatzeko soñekoren bat; janaria pres-

tatzeko tresnak: zartagia ta lapikoa; toki berean artzai baten izkillu bereziak: kaikua esnea jz-teko, apatza matoia egiteko eta zumitza matoia estutuaz apatz gañean gaztaia egiteko. Atarian, beti egoi aldetik, aterpe bat erdizka ormaz inguratua; txoko batean tximinirik gabeko suto-
kia; lurrean edo iru anka gañean tinkatutako muskil bat eserleku bezela. Aterpe ortantxe artzen dituzte artzaiak beren otorduak eta egiten dituzte beren gaztak. Etzan-tokia, berriz, txabola barruan, jentillenena ere era ortakoa izango zan.

Tolosar mendigoizaleek ikusi zuten zein bear tsu eta errukitsu bizi ziran Aralar-go artzaiak. Ikusi zuten beste gauza bat ere. Artzai oriek bakardade aundian bizi zirala. Inguruko artzaien

bat izan ezen, edo iñoiz bidaztiren bat, beste iñor ikusi gabe aste guzian. Aste guztian esan det, bada astean bein jexi bear izaten zuten beren etxetara edo gertueneko uriren batera janari billa beren zamariekin. Gogora zagun artean etzala Lekunberri-tik «*Goardetxerako*» bide zabala. Beraz egun guztia bear zuten joan-etorria egiteko. Bakardade orrek bazekarren artzal fededun aientzat garrantzi aundiko beste ondorengo bat: jai egunetan ezin zutela mezarik entzen. Gaztarotik igande oro oitutakoarentzat gauza astuna benetan. Noiz edo bein, jai aundietan, esate baterako Korpus egunean, San Migel-era joko zuten batzuek, beren buruari asko eskatuta. Esan genezake, beraz, Aralar-go artzaiek etzutela entzuten ez mezarik eta ez Jainkoaren itzik uda guztian, ezin zutelako.

Igaratza-ko Elizatxoa

«Aralar-go Adixkideeri» artzaien utsuna aundi ori betetzeko asmoa sortu zitzairen. Urbia-ko artzaieri bezela, zergatik ez eman Alagar-goeri igandetan Meza entzuteko errestasuna? Zergatik ez eraiki *Igaratzako Babes inguruan*, Napparroa-ko mugatik gertu, bas-eliza bat, Urbia-n bezela? «Aralar-go Adixkidentzat» ere oso egoki letorken gauza. Izan ere, mendigoizaleek geienetan igandez otzen dute mendira eta *Igaratzako babesean* aste osoa igarotzera joaten ziranek, nola entzun Meza? An inguruan elizatxo bat egin ezker oso errex, bai artzaiek eta bai mendigoizaleek.

Pantxo Labayen, orduko «Aralar-go Adixkideen» lendakariak, egin zituan bideak Gazteizko Gotzaiarengandik baimena irixteko. Gotzaiak oso gogo onez eman zuan baimena, alako asmo bikañak ikusi zituanean. Ala aitortu zidan Pantxok bein baño gelagotan, Bakarrik balintza bat jarri zuan: meza ematen zuanak mezako garaietan itzalditxo bat artzaieri egitekoa en lengua vernácula, beraz euskeraz. Garai artan meza osoa latinez ematen bait-zan, entzuleak ezer ulertzen etzutele.

Urduko batzordeak ekin zion lanari kristau-egintza on bat burututzeko asmoak eraginda, *Igaratza-ko* babesa eginzaneko «esperenziak»

argituta. Baita burutu ere. Esan bear da aurrenako elizatxo ura oso txikla zala: iru ormatxo gañean estali bat; laugarren aldetik zurezko langa bat guztia ixteko, orain burnizkoa dagon bezela. Arri ta morteroz egindako aldare bat aurreko ormarl erantsia; gaillurrean orain ikusten dan txillina bera. Beraz doi-doi meza emateko babes bat, onixe zan urduko eliza. Entzunle guztiek kanpoan egon bear. Apaiz jantziak ere nun gordetzeko tokirik etzegon eta aldioro, meza ondoren, zorro batean sortu eta refujiora eramaten ziran. Ala ta guztiz ere, aitortu bear da, lan txalogarria egin zutela «Aralar-go Adixkideek». Bada, elizatxo ura eraikitzeke gai guztia mandoz jaso bear izan zuten *Lizarruti-tik Igaratza-raño*.

Meza emailleak

Estalpetxo artan eman zuan Tolosa-ko apaiz batek *Igaratza-ko* lenbiziko meza. Noiz edo bein *Igaratza-n* meza emateko apaiz bat aurkitzea, ez da ain zailla. Baiñan aldioro, igande ta jai, mendi artan mez ematea bere gain artuko zuan apaizik etzan ikusten Tolosa-n. Lenbiziko urtean bazkide nagusiek nola edo ala sortu zuten meza emaillea. Bigarren urtean, Pantxo Labayen-ek Lazkau-ko komentura jo zuan esanez: «Aranza-ko prantxiskotarrek ematen dute igande oro Urbia-n artzaien meza. Ez al zenduteke zuek ere beste ainbeste egingo *Igaratza-n*? *Pantxo-ri* erantzun baño len kontuak ateratzen asi nintzan: ni baitnintzan orduan komentuko nagusi. Mendiz Lazkau-tik *Igaratzara* lau ordu bear dira. Lazkau-tik Lizarrusti-ra, tarteka bizikletan eta tarteka oñez aldapan bi ordu onak eta andik *Igaratza-ra* ia bi ordu. Baño, etxerakoan, Lizarrustitik Lazkau-ra bizikletak errestasun aundia ematen du. Meza amabietan eta igandea goizean goiz atera bear lau orduko bidea baraurik egiteko: ala agintzen bait-zuen garai artako legeak. Etzan lan errex. Ala ta guztiz ere, garai artako berrogei ta amar urteko sasoiarekin baiezkoa eman nion Pantxo-ri, nik ezin nuanean besteren bat joango zala-ta.

Eliza berria

Ondo gogoan daukat *Igaratza-n* eman nuan



Igaratza'ko elizatxoaren eraikuntza



San Miguel Aingerua Igaratzen

lenbiziko meza. Maiatzaren aurreneko igandea zan. Labayen-ek «autobús» bat jarri zuan Tolosatik *Lizarrusti*-ra eta ni Lazkau-n artu ninduen. Oso eguraldi txarra zan: euria goien eta lokatza beran. Mezako garaian elurrak eman zion. Apaiza eta bere laguntzaillea ez besteak atari zabailean... Ango aizearen doña!

Orrela iraun genduan urte bat edo bi. Artzaiak zintzo etortzen ziran meza entzutera igandez Aralar-a igotzen ziran mendigoizalekin batera. «Aralar-go Adixkideak» egokitasun baten zai zeuden estalpe ura eliza biurtzeko. Sortu zan ongille bat eta bereala asi ziran lanean. Oraingoan mandoz ez baña idiz jaso zuten gai guztia *Lizarrusti*-tik *Igaratza-raño*. Luzatu zuten aurreneko estalpetxo eta erantsi zioten «sakristi» bat apaiz-jantziak eta beste elizako gauzak gordetzeko. Gaiñeara eliz-gela ortan jarri zituzten bi oe eta labetxo bat berotzeko. Geroztik etorri nindeken bezperatik lasai, komentuko eginkizunek utzi ezkeru.

Elizatxo, berriz, oso poliki gelditu zan. Aldarearen gañean jarri zuten Ama Birjiña Aranzazu-

koaren iduria, onen eskubian Menton-go Bernardo deuna, mendigoizaleen zaindaria eta ezkerrean Mikel, Aralar-go Goiaingerua. Beraz, Igaratza-ko elizatxo Ama Birjiña Aranzazu-koaren izenean eraikia dago. Ez al zan gauza egokia artzaien erreztasunerako egindako eliza Ama Birjiña Aranzazu-koaren izenean jartzea? Izan ere elizatxo onen aurrez-aurre dago Aloña mendia, Erñodrigo artzaiari arantza edo elorri gañean Ama Birjiña agertu zitzaion tokia.

Esan degun bezela, poliki azia gelditu zan eliza, eta meza entzutera etortzen diranak, danak ez bada erpe geienak sartzen dira eta patxaran ezeretzeko aulkiak badituzte. Besteak atarian gelditzen dira lizar-babesean edo itzalean. Auek, giro ona dagonean, lurrean esertzen dira itzaldiko garaian. Urte batzuek dirala, Tolosa-ko Basagoitiak bere lanbideetan ezagututako injeniero ingeles bat eraman zuan *Igaratzara* eta igandea zalako baita meza ere, naiz ingeles ori protestantea izan. Andik egun batzuetara, Ingalaterra-ra iritxi zanean, injenieroak idatzi zion Basagoitia-ri esanez atsegín aundia eman ziola Igaratza-ko

mezak: aren iritziz Jesukristo-k jende taldeari itzegiten zionean, entzunleak orrelaxe lurtean eserita egongo ziran.

Igaratza-ko lizardia

Lan aipatu dituan lizar aiek mesede aundia egiten dute orain eliz-atarian. Ogei ta bost urte izango dira Txomin nere meza-laguntzaillea ta biok asi giñala lenbiziko lizarrak aldatzen. Etzan lan errexa. Inguruan lizar landarak ez dago eta Ataun-go mendietatik ekarri bear izan giñazten bizkarrean. Agudo azitzen ziran zuaitzak nai nituan, lenbailen itzal ederraz gozatzeko. Ortarako mandoz eraman nituan platano ta akazi landara batzuek. Udaberria eldu zanean, ederki asi ziran ostoa ematen. Baño neguko elur eta izotzarekin eta ango ipar biziarekin zearo ondatuta gelditu ziran. Aizkeneko lizar landarak Ordizia-ko base-ri batetik ekarri genituan eta komentuko zal-diarekin gurditxo batean igo Zulueta edo Martin Etarte-ren txabolaraño eta andik *Igaratzara* bizkarrez, Etxekalte artzaiaren laguntzarekin. Nere ametsa zan elizatik iturriraño zuaitzez ondo estalitako ibil-toki atsegín bat egitea. Atxur eta palaz egin genituan zuloak eta ingurutik lur gozoa bota ondoren sartu landarak. Bakoitzari esola bana edo bi lotu nizkien abere eta aizeak ondatu ez zitzen. Danak itsasi zuten eta asi ziran ostoa ematen: ua edertasuna! Aste oro, *Igaratzara* igo orduko nere lana zan: lizarrai ura ematea. Bañan sortu ziran etsaiak. Aurrena abereak: ardiak, beorrak eta beiak. Batzuek ostoa jan eta besteak atz egiñaz alde guztietara erabilliz ondatu. Sortu ziran etsai gaiztoagoak ere: ganberrokalekume, sasi mendigoizaleak; aizkora edo tresna bat eskuan izan ezkeru edozein pikardi egiteko trebe diranak. Oriek moztu zituzten lizar batzuek eta daneri esolak kendu su egiteko. Orduan azaldu zan neri ainbeste mesede egin dizkidan Patxi Dorronsorok. Onak utsune guztiak bete zituan Maillo-etatik ekarritako lizar landarak. Bañan betiko etsaiek betiko lanean jarraitzen dute. Aurreko neguan bertan eliza ondoko lizar aundienetako bat aizkoraz moztu dute. Sua egiteko noski... Igaz arratsalde batez, *Igaratzara* iritxi nintzanean amar-amabi urteko motil sail

bat aurkitu nuan elizaren gañean: an zeukaten jarrita beren lo egiteko tokia eta noiz edo bein bertan zeukaten txiliñari astindu bat ematen zioten. Gero ikusi nuan sakristiatik gauza batzuek aldegin zutela: meza emateko ardoa, aizkora txikia, «kanguro» bat, erratza eta butano-argia. Ibili nintzan inguruko gazteen artean gauza orien berri jakin naiean, baño alperrik. Bakarrik atera nuan motil txikienetako bat ibili zala sakristian eliza ixten duan burnizko sarearen zirriztutik sartuta. Orregatik ateko zirriztu aundienean alanbre arantzudun bat jarri nuan.

San Mikel Igaratza-n

Igaratza-tik amar kilometrora dago Aralar-go *San Mikel Goiaingeruaren Eliza* ospetsua, Euskal Erri guztian ain ezagutua eta maitatua. Uda aldian, Naparroa-ko uri guztietara eramaten dute Aralar-go Aingeruaren iduria eta uri bakoitzean ongi-etorri bikaiña egiten diote, beraren onespena irixtearren. Pantxo Labayen ain fededun izan eta bururatu zitzaion San Mikel *Igaratza-ra* ekarri bear zala. Artean Aralar-go Aingerua etzan sartu Gipuzkoa-n. Ortarako bi Gotzaien baimena bear zan, Igaratza-ko bas-eliza Gipuzkoa-n dagolako. Pantxo zanak iritxi zituan San Mikellentzat bear ziran «pasaporteak». Aurrez izentatu zan eguna eta berealdiko jende sailla bildu zan *Igaratza-n*, San Mikel-i ongietorria ematearren, bai Naparroa-tik eta bai Gipuzkoa-tik. Lenbiziko urteetan baziran *San Migeleraño* jotzen ziranak, gero andik *Igaratza-ra* Aingeruari laguntzeko, oiñez jakiña. Artean ez bait-zan «*Goardetxetik*» *San Migel*-era bide zabalik: ezta «*Goardetxetik*» *Igaratza-ra* orain bezela «pistarik». Orain biak egiñak daude eta Patxi Dorronsorok ekartzen du gurdian Aingerua bere laguntzailleekin. Urte oro biltzen da jende saill ederra baño ez aurreneko urtetan ainbe. Zergatik ori? Orain *Igaratza-n* bertan, jendearentzat leen alako errextasunik ez dagolako. Lenago bazan jantegi edo «kantina» bat eta nunai edariak saltzen ziran. Bañan orain ez dago ezer; bakarrik ura eta au ere exkax. Egun guztian nola iraun ezer artu gabe? Ezer artzekotan norberak eraman bear. Patxi Dorronsorok San Mikel ekartzen duan

apaizari eta bere laguntzailleeri ematen die esku zahalez eta biotz onez bear duten guztia bere etxean.

Igaratza-ko «kantina»

Emen garbi agiri da zeñen egoki letorken jantegi bat artzaiarentzat eta mendigoizaleentzat. «Aralar-go Adixkideen» burukideek ikusi zuten ori. Eta beren «refugio» edo babesari eratsita zegoen guztientzako aterpea beste toki batean jarri zutenean, erabaki zuten antxe jartzea artzai bat berari zerizkion jan edariak saltzeko. Eginkizun ori Pedro Mari, bere txabola *Enerio*-n zeukan artzaiari eskeiñi zioten. Izan ere lenagotik bazuan oitura inguruan zebillan jendeari janaria eta edaria saltzekoa. Urruti egiten zitzaion *Igaratza* bere txabolatik: ordu ta erdi. Jan edariak ekartzeko «*Goardetxera*» joan bear beste ainbesteko bidean. Eragozpen aundiak ziran, bañan ala ere, artu egin zuan, eta uste dut ez zitzaiola damutu. Artean emaztea bizi zuan, pamillia azia, tartean iru neska, jendea serbitzeko aukerakoak. Gaiñeara bazeuzkan bi zaldi gauzak erabiltzeko. Esan bear da oso ondo portatu zala Pedro Mari. Igarande oro, edozeiñek *Igaratza-ko* «kantinan» artu zezaken salda beroa nai zuan edariarekin, kafea, kopa eta aurrez esan ezkeroko bazkari polita modu onean. Zer egokitasuna mendigoizaleentzat eta zenbat gozatzen zuten, meza ondoan, an salda artzera biltzen ziran artzaiak! Zori txarrez Pedro Mari artzantzari utzi bearrean gertatu zan. Bi artzai, Batista zanak eta «Martxok» artu zuten Pedro Mari-ren lana. Auek ere ondo portatu ziran, bañan bi urte barru utzi bear izan zuten eta geroztik ez da *Igaratza*-n jan-tokirik ezagutu, ezta San Mikel etortzen danean ere. Ez ote da sortuko iñor jendeari alako mesedea egingo dionik?

Aukerako artzai-txabola

Asieran esan degu garai artako artzaiak zein txabola tatar eta errextasun gabekoetan bizi ziran, geroztik asko obetu badira ere. Orregatik Pantxo Labayen-ek, biotz onekoa izanik, pentsatu zuan Donostia-ko Aldundiaren laguntzarekin *Igaratza*-n aukerako artzai txabola bat egitea,

beste txabolen eredu izango zana, alako txaboletan artzaien bizitza alaiagoa izan zedin. Bere asmoak aurrera zeramatzala, Lizartzako bidean illda billatu zuten Pantxo biotz onekoa. Ortan gelditu izan aren amets ederrak.

Auek dira Aralar-go Adixkideek artzaien alde egindako nik ezagutzen dituan lan aipagarriak. Tuduri izan zan lan orien zuzendari. Jainkoak onetsi ditzala!